

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek
Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:
Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2021eko martxoaren 12an egindako ohiko bilkuran, erakunde-adierazpen hau onartu zuela, aho batez:

“Mikel Zabalza beste pertsona batzuekin batera atxilotu zuten duela 35 urte, ETAko kide zela esanez, eta Guardia Zibilaren Intxaurrondoko kuartelera eramanez. Mikel Zabalza bizirik sartu zen kuartelean eta egun batzuk geroago hilda agertu zen Bidasoa ibaian.

Baina zer gertatu zitzaion Mikel Zabalzari? Bertsio ofizialaren arabera –gaur egun bertsio horrek indarrean jarraitzen du–, zona horretan ETaren arma zulo bat egiaztatzen ari zirenean, Zabalzak ihes egin zien guardia zibilei, zulo batetik ibaira erori zen eta itota hil zen. Harekin atxilotutakoek torturak salatu zituzten eta gizartearen zati handi batek ez zuen inoiz Guardia Zibilaren bertsiorik sinistu.

Mikel Zabalzaren desagertzearen larritasunak eraginda, 1985eko abenduaren 6an, Donostiako Udalbatzak mozio bat onartu zuen: “Donostiako Tranbia Konpainiako langile eta Donostiako bizilagun den Mikel Zabalza jauna non dagoen argitzeko ikerketan eta gertaeren argipenean laguntzeko konpromisoa hartuz, eta horretarako, kasua argitzeko irekita dauden diligentzietan herri ekimen gisa agertzeko konpromisoa hartuz, Donostiako Instrukzio Epaitegiko 1. aretoan”.

Mozio hura berresteko konpromisoa hartu zuen Donostiako Udalak 2015eko azaroaren 26ko Udalbatzan.

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 12 de marzo de 2021, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

“Mikel Zabalza fue detenido junto a otras personas hace 35 años como miembro de ETA y llevado al cuartel de la Guardia Civil de Intxaurrondo. Mikel Zabalza entro vivo al cuartel y, días después, apareció muerto en el río Bidasoa.

¿Pero qué le pasó a Mikel Zabalza? Según la versión oficial, que en la actualidad sigue vigente, cuando en esa zona se estaba comprobando un zulo de ETA, Zabalza huyó de los guardias civiles, cayó al río y murió ahogado. Los detenidos con él denunciaron torturas y buena parte de la sociedad nunca creyó la versión de la Guardia Civil.

Ante la gravedad de la desaparición de Mikel Zabalza, el 6 de diciembre de 1985, el Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián aprobó una moción en la que se comprometía a coadyuvar al esclarecimiento de los hechos y la investigación del paradero de Mikel Zabalza, trabajador de la Compañía del Tranvía de San Sebastián y ciudadano de Donostia, personándose en el Juzgado de Instrucción nº1 de Donostia y en las diligencias abiertas en el mismo a tal efecto, mediante el ejercicio de la acción popular.

El Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión plenaria celebrada el 26 de noviembre de 2015, se comprometió a ratificar dicha moción.



Público hedabideak Mikel Zabalza (1952-1985) Guardia Zibilaren Intxaurrondoko kuartelean jasandako torturen ondorioz hil zela agerian uzten duten grabazioak argitaratu zituen otsailaren 22an. Zabalza atxilotu zuteanean CESID-eko (Centro Superior de Información de la Defensa) koronela zen Luis Alberto Peroteren eta Galindoren aginduetara zegoen Pedro Gomez Nieto Guardia Zibileko kapitainaren arteko elkarrizketa bat da grabazioa, eta Zabalza Intxaurrondon jasandako torturen ondorioz hil zela adierazten dute, zehazkiago, "plastikozko poltsa buruan" aplikatzearen ondorioz. Grabazio berean "esku artetik joan zaie, galdeketa gelditu zaie", dio Gomez Nietok.

El medio de comunicación Público publicó el 22 de febrero grabaciones que evidencian que la muerte de Mikel Zabalza (1952-1985) fue por las torturas sufridas en el cuartel de la Guardia Civil de Intxaurrondo. La grabación es una entrevista entre Luis Alberto Perote, coronel del CESID (Centro Superior de Información de la Defensa) en la época en que detuvieron a Mikel Zabalza, y el capitán de la Guardia Civil, Pedro Gómez Nieto, el cual estaba a las órdenes de Galindo. En dicha grabación se afirma que la muerte de Zabalza fue a causa de las torturas sufridas en Intxaurrondo, en concreto se dice que fue por la aplicación de la bolsa en la cabeza. En la misma grabación se puede escuchar a Gómez Nieto diciendo "se les ha ido de las manos, se les ha quedado en el interrogatorio".

Audio horren transkripzioa froga moduan erabili zuen familiak duela 25 urte egin zen epaiketan. Hala ere, orain arte ez dira erabilgarriak izan familiak gertaera horiek sakon aztertzeko egin dituen ahalegin guztiak.

La transcripción de este audio fue utilizada como prueba por la familia en el juicio celebrado hace 25 años. Sin embargo, hasta el momento no han sido útiles todos los esfuerzos realizados por la familia para analizar en profundidad dichas pruebas.

Audio horiek kontuan hartzea merezi dutela uste dugu, eta, zalantzarik gabe, Mikel Zabalzaren heriotza argitzen lagun dezakete.

Creemos que estos audios merecen ser tenidos en cuenta y, sin duda, pueden ayudar a resolver la muerte de Mikel Zabalza.

Horiek horrela, behean sinatzen dugun udal taldeok honako hau proposatzen dugu:

Por todo lo expuesto, los grupos municipales que abajo firman, proponen:

1. Donostiako Udalbatzak eskatzen du, Gómez Nieto Guardia Zibileko kapitainak eta Juan Alberto Perote CESIDeko buruzagi koronelak ustez parte hartzen duten audioak agertu ondoren, horien edukia sakon iker dadila, Mikel Zabalzaren heriotzaren inguruan egia jakiteko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastian exige que, tras la aparición de unos audios en los que presuntamente intervienen el capitán de la Guardia Civil Gómez Nieto y el entonces coronel jefe del Cesid Juan Alberto Perote, se investigue a fondo el contenido de los mismos con el fin de saber la verdad en torno a la muerte del joven Mikel Zabalza.

2. Donostiako Udalbatzak guardiako epaitegiari eta Estatuko fiskaltzari eskatzen die, duela gutxi ezagututako grabazioen edukia kontuan izanik, tortura delitu posible baten berri ematen den, Mikel Zabalzaren kasua berriro irekitzea azter dezatela.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastian solicita al Juzgado de Guardia y a la Fiscalía del Estado, que al hilo del contenido de las grabaciones recientemente conocidas, donde se da a conocer un posible delito de torturas, se estudie la reapertura del caso Mikel Zabalza.

3. Donostiako Udalbatzak 1985eko abenduan egin bezala, berresten du, Mikel Zabalzaren hilketaren gertaeren argipenean laguntzeko konpromisoa hartzen duela, eta horretarako, kasua argitzeko diligentiak irekiz gero, haie-

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastian, como ya hizo en sesión celebrada en diciembre de 1985, ratifica su compromiso de colaborar en la resolución de los hechos de la muerte de Mikel Zabalza,



*tan herri akusazio gisa agertzeko konpromi-
soa hartzen duela”.*
=====

*comprometiéndose a comparecer como
acusación popular en el caso de que se
abrieran diligencias para aclarar el caso.”*
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion
ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta
ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut,
Donostian, 2021eko martxoaren 15ean.

Y, para que así conste y surta los efectos
precedentes, expido, firmo y sello esta
certificación visada por la Alcaldía y de su orden
en la ciudad de San Sebastián, a 15 de marzo de
2021.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE: